

2019ko irailaren 3a 167. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kulturako hurrengo diru-laguntza lerroak publikatu dira:

- Eszena ikuskizunak sustatu eta saltzeko eta arte eszenikoen alorrean sentsibilizazio, prestakuntza eta bitartekotza programak dituzten Gipuzkoako konpainia eszenikoei (antzerkia eta dantza) diru-laguntzak.
- Gipuzkoako udalerrietan arte eszenikoen eta musikaren alorretako emanaldien urteko programazioa eta sustapen egitasmoak garatzeko Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko kultur entitateei zuzendutako (Euskadiko Antzoki Sarea) diru-laguntzak.
- Gipuzkoan egindako ikus-entzunezko proiektuak ekoizteko eta hedatzeko diru-laguntzak.

Buletina goitik behera irakurtzea gomendatzen dugu: laguntzen oinarri orokorrak, lerro bakoitzaren oinarri espezifikoak eta lerro bakoitzarentzat egiten den deialdia, bertan zehazten baitira epeak. Hala ere, kontziente gara korapilatsua eta zaila izan daitekeela hizkuntza administratiboa, eta ez gaudela ohituta. Horregatik, hona hemen interesekoak izan daitezkeen hainbat ohar.

Diru-laguntza hauek konkurrenteak dira, hau da, eskaerak haien artean lehiatuko dira diru-laguntza lortzeko. Kontuan izan: laguntzarik jasotzen ez duen proiektua ez da gutxienesten, baina lehia horretan beste batzuk izan daitezke hobe baloratuak.

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin behar da (<https://gfaegoitza.eus>): horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...). Pasahitz hori lortzeko informazio gehiago topa dezakezu **lotura honetan**. Prozedurarekin jarraitu ahal izateko, Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14.2 eta 68.4 artikulua jasotzen dituen baldintzak bete behar dituzu: zure datu fiskalei buruzko informazioa ematea esan nahi du horrek, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez edukitzea... Era berean, proiektuaren deskribapena eta gastu eta irabazien aurrekontua ere entregatu behar dituzu. Beste behin, Aldizkari Ofiziala atentzio handiz irakurtzea gomendatzen dizugu.

Behin zure eskaera aurkeztuta, aipatu dugunez, horretarako espresuki izendatutako adituek osatutako epaimahai batek aztertuko du. Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezartzen diren irizpideen arabera egingo dituzte balorazioak. Ezinbestekoa da irizpide horiek kontsultatzea, horrela puntu gehiago lortzeko zure proiektua nola hobetu jakin ahal izango duzu.

Epaimahaiak proiektuak baloratzen dituzenean, puntu gehien dituztenek laguntza handiagoa jasoko dute, eta bi zatitan ordainduko diete: %60 diru-laguntza ematea erabaki duten momentuan eta %40 hurrengo urteko lehen hilabeteetan. Kontuan izan banaketa hori zure irabaziak eta gastuak aurreikusterakoan. Jarduerak, bai edo bai, aurrera eraman behar dira, eta noski, dagozkien gastuak ordaindu behar dira urte honetan zehar.

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari dagokionez izan ditzakezun dudekin. K bulegoa Gipuzkoako kultur-arloan lan egiten duten pertsona, talde eta entitate amateur zein profesionalen informazio-espazio eta bidai-laguna da. Proiektuen sorkuntza eta garapenean suertatzen diren beharrei erantzuteko jaio den guneak, egitasmoen iraunkortasuna eta sektorearen profesionaltasuna sustatzea ditu oinarritzko helburutzat.



(+34) 943 113 343 / kbulegoa@gipuzkoa.eus / Errege-erregina Katolikoan kalea, 16 / 20006 Donostia / *Hitzordua hartzea gomendatzen dugu

DIRU-LAGUNTZA MODALITATEAK ETA BALDINTZAK

ANTZERKIA ETA DANTZA

EUSKADIKO ANTZOKI SAREA

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Eszena ikuskizunak sustatu eta saltzeko eta arte eszenikoen alorrean sensibilizazio, prestakuntza eta bitartekotza programak dituzten Gipuzkoako konpainia eszenikoei (antzerkia eta dantza) diru-laguntzak.

Bete beharreko baldintzak:

- Gipuzkoan zerga eta sozietate helbidea duten pertsona fisiko nahiz juridiko-pribatuak izatea.

- Ekonomia Jardueraren Gaineko Zergan dagokion atalean izena emanda egotea.

- Azken bost urtetan gutxienez 3 eszena ikuskizun profesional ekoitzi eta zabaldu izana.

- Deialdiko urtean aktibo egotea, aurtengo edo iazko obra batekin.

- Diru-lagunduko diren jarduerak: eszena ikuskizunen sustapena eta salmenta; arte eszenikoen alorreko sensibilizazio, prestakuntza edo bitartekaritza.

- Jarduerak urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31aren artean burutzea.

Gipuzkoako udalerrietan arte eszenikoen eta musikaren alorretako emanaldien urteko programazioa eta arte eszenikoen sustapen egitasmoak garatzeko Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko kultur entitateei zuzendutako diru-laguntzak (Euskadiko Antzoki Sarea).

Bete beharreko baldintzak:

- Laguntzak jaso ahal izango dituzte Gipuzkoako udalek, nahiz udalen elkarteek.

- Beharrezkoa izango da gastuei aurre egiteko behar adinako kontusaila edukitzea aurrekontuetan.

- Programazio arduradun bat edukitzea Euskadiko Antzoki Sarearekin koordinatzeko.

A) 1. Arte eszenikoen programazioa: urteko 6 obra ezberdin, gutxienez.

2. Musika programazioa: urtean gutxienez 4 kontzertu, horietatik bi Euskal Herriko artistenak.

Bi modalitateentzat baldintzak:

- Artista edo talde profesionalak ekoitziak.

- Katxeta ordaintzea.

- Ekipamendu eszeniko egonkorak.

- Publikoarentzat doakoak ez izatea.

Eskatzaileek nahitaez aurkeztu beharko dute arte eszenikoen gutxieneko programazioa. Musikarena aukerazkoa da.

B) Arte eszenikoen sustapena ingurune lokalean: udal antzokiaren eta konpainia eszeniko baten arteko hitzarmen bat edo batzuk aurkeztuko dira. Konpainiak Euskal Herrikoa beharko du izan, eta akordioek jarduera anitzak jasoko dituzte.

- Jarduerak urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31aren artean burutzea.

Gipuzkoan egindako ikus-entzunezko proiektuak ekoizteko eta hedatzeko diru-laguntzak emateko.

Bete beharreko baldintzak:

- Gipuzkoan zerga eta sozietate helbidea duten pertsona fisiko, irabazi asmorik gabeko entitateak nahiz enpresa pribatuak izatea, ikus-entzunezko proiektuak Gipuzkoan zuzenean garatzen badituzte.

- Ikus-entzunezko lantzat hartuko da 60 minutu baino gehiagoko iraupena duena.

- Lokal publiko batean publikatuko dena.

- Ekonomia Jardueraren Gaineko Zergan dagokion atalean izena emanda egotea.

- Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatutako proiektua.

- Ekonomikoki bideragarria izan behar du.

- Entitate, enpresa edo partikular eskatzaile bakoitzak ekoizpen proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

- Jarduerak urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31aren artean burutzea.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

TEATRO Y DANZA	EUSKADIKO ANTZOKI SAREA	IKUS-ENTZUNEZKOAK
<p>Diru-laguntzaren zenbatekoa ondorengo irizpideen arabera kalkulatu da:</p> <p>a) Ikuskizunen sustapen eta salmentan osorik edo denbora batez jarduten den pertsonalaren kontratazio kostuaren % 70a, 15.000 euroko diru-laguntza mugarekin.</p> <p>b) Komunikazio gastuen edota sustapenera zuzendutako materialak gauzatzearen gastuen % 70a, gehienez 3.000 euroko diru-laguntza.</p> <p>c) Arte eszenikoen alorrean sentsibilizazio, prestakuntza eta bitartekaritza lanetan erabiliko den gastuen % 70a, gehienez 3.000 euroko diru-laguntza.</p>	<p>Urteko programazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Musika-ikuskizunetarako: katxet altuena duten 3 kontzertuak hartuko dira kontuan, horietarik bi euskararen lurraldeetako baten egoitza duten talde edo artistek ekoiztutakoak izango direlarik. Emanaldi bakoitzaren katxetaren eta beharrezko ekipamendu teknikoa alokatzearen kostu osoaren batuketaren % 30. - Arte eszenikoak: erakunde eskatzaileek gehienez ere bi ikuskizun aurkeztu ahal izango dituzte modalitate honetara. Katxetaren %50 gehienez, eta gainontzekoei, puntu sistema aplikatuko zaie. <p>Udal mailako arte eszenikoen sustapeneko egitasmoetara bideratutako laguntzak gastu-aurrekontuaren % 70 izango dira gehienez eta 6.000 euroko mugarekin.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kokalekuak Gipuzkoan izatea: gehienez 10 puntu. 2. Gipuzkoako talde tekniko eta artistikoak: 10 puntu arte. 3. Deialdia argitaratu aurreko urtean izandako ikus-entzunezko ekoizpenaren barruan duen garrantzia: gehienez 30 puntu. 4. Ikus-entzunezko ekoizpenean hizkuntza berritzaileak eta ikuspegi berriak erabiltzea: gehienez 20 puntu. 5. Jatorrizko bertsioa euskaraz filmatzea: gehienez 15 puntu. 6. Emakumeen partaidetza ekoizpenean, talde tekniko eta artistikoetan: gehienez 15 puntu. <p>Diru-laguntza mota honetara bideratutako diru kopurua zatitu egiten da modalitate bakoitzean baldintzak betetzen dituzten eskatzaileek lortutako puntu guztien artean. Hortik ateratzen den zatidurak puntu baten balioa izango du eta, zein diru laguntza eman erabakitzeko, balio hori biderkatu egingo da erakunde eskatzaileak lortutako puntu kopuruaz.</p>

DIRU-KOPURUAK

180.000 €	250.000 €	150.000 €
-----------	-----------	-----------

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

<p>Oro har, diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango diruz lagundutako egitasmoa garatzeko aurreikusten den gastuaren % 70 baino handiagoa.</p> <p>Proiektu guztiek aurkeztutako aurrekontuaren % 30 gutxienez beste finantzabide batzuekin estali beharko dute, izan publikoa nahiz pribatua.</p> <p>Gehienera 21.000 €ko diru-laguntzak izango dira.</p>	<p>Informazio guztia, hemen.</p>	<p>Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inoiz ere gastuen % 70 baino handiagoa izango, ez eta 40.000 eurotako kopurua baino handiagoa ere.</p> <p>Diru laguntza hau bateragarria da jarduera bereko jaso daitezken bestelako laguntzekin, beti ere laguntza guztien kopurua aurrekontu osoaren % 70 ez badu gainditzen.</p>
--	--	--

Eskaerak aurkezteko epea

Oinarri osoak, eskaerak aurkeztu, inprimakiak eta aurkeztu beharrezko dokumentazioa: <https://egoitza.gipuzkoa.eus>. Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea 2019ko irailak 30.

Zuritzeko epea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>). Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da.

*Oharra: Taula hauek K bulegoak egindako laburpenak dira. Diru-laguntzen ideia nagusiak ulertzen laguntzeko egin ditugu. Oinarri osoak kontsultatzeko: <https://egoitza.gipuzkoa.eus>.